

Ingurumeneko Kontseilu Sektoriala – 12. saioa

Consejo Sectorial de Medio Ambiente – Sesión 12

Deialdia egin duena Convoca	Donostiako Udala Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián
Data, tokia eta ordua Fecha, lugar y hora	2018ko urriaren 29/ 29 de octubre de 2018 Udalbatza aretoa /pleno 18:30 / A las 18:30 horas
Amaiera ordua Hora de finalización	21:05 / A las 21:05 horas

GAI ZERRRENDA:

ORDEN DEL DÍA:

- | | |
|--|---|
| <ol style="list-style-type: none">1. Aurreko aktaren onarpena (10 minutu)2. Eraikuntza- eta eraispen-hondakinak (15 minutu)3. Kutsadura akustikoari buruzko ordenantza (15 minutu)4. Kutsadura akustikoari buruzko mapa estrategikoak, ekintza plana (15 minutu)5. Gune Naturalen kudeaketarako zuzenbideak (15 minutu)6. Norberak lekarkeena (10 minutu) | <ol style="list-style-type: none">1. Aprobación del acta anterior (10 minutos)2. Evaluación de los consejos sectoriales (30 m.)3. Dinámica de grupo sobre evaluación del consejo (30 minutos)4. Indicadores de sostenibilidad (15 minutos)5. Presupuesto 2019 (15 minutos)6. Ruegos y Preguntas (10 minutos) |
|--|---|

BILERAN PARTE HARTU DUTE:

HAN ASISTIDO A LA SESIÓN:

KONTSEILUKO LEHENDAKARITZA PRESIDENCIA DEL CONSEJO	Ingurumeneko zinegotzi ordezkaria Concejala delegada de Medio Ambiente
TALDE POLITIKOEN ORDEZKARIAK REPRESENTANTES GRUPOS POLÍTICOS	PSE IRABAZI m
KONTSEILUKO KIDEAK VOCALES DEL CONSEJO	1. HARITZALDE





	<ol style="list-style-type: none">2. EMAUS Fundación Social3. SEO DONOSTIA4. EGUZKI5. DONOSTIA BIZIRIK6. Aranzadi7. COAVN8. KALAPIE9. CRISTINA ENEA FUNDAZIOA
ETORRI EZ DIRELAKO DESENKUSATU DIRA EXCUSARON SU ASISTENCIA	ITSAS ENARA
UDAL TEKNIKARIAK PERSONAL TÉCNICO MUNICIPAL	Ingurumeneko Zuzendaria A Ingurumen Osasunaren eta Iraunkortasunaren Zerbitzuaren burua Jefa del Servicio de Salud Ambiental y Sostenibilidad Partaidetza
PARTAIDETZAREN DATUAK DATOS DE PARTICIPACIÓN	Emakumezkoak / Mujeres = 6 Gizonezkoak / Hombres = 9
KONTSEILUKO IDAZKARITZA: SECRETARÍA DEL CONSEJO:	Ingurumeneko Goi Mailako Lege Teknikaria / Técnico Superior Jurídico de Medio Ambiente ingurumena@donostia.eus

Saioaren bilakaera:

Desarrollo de la sesión:

<p>1. Aurreko akta onartzea</p> <p>Kalapieren ordezkariak eskatu du aurreko aktan jasotzea beharrezkoa dela su festen aurreko prentsaurrekoan ohartaraztea ke eta zarata arriskutsua dela. Halaxe jasotzen da. Bestela, aurreko akta onartuta geratu da.</p>	<p>1. Aprobación del acta anterior</p> <p>El representante de Kalapie solicita que se añada en el acta anterior la necesidad de que se advierta en la rueda de prensa previa a los juegos artificiales los riesgos del humo y el ruido. Así se hace. Por lo demás se aprueba el acta anterior.</p>
<p>2. Kontseiluen ebaluazio-aurkezpena</p> <p>Partaidetzako teknikari O. E.-k kontseiluaren bilakaerari buruzko ondorioak aurkeztu ditu, indarguneak eta ahuleziak. Eskuragarri dago dokumentua. Gainera, gonbit egin die kideei formulario bat betetzera, partaidetza hobetzeko hartu beharreko neurrien berri izateko.</p>	<p>2. Evaluación de los consejos sectoriales</p> <p>La técnica de Participación O.E. presenta las conclusiones sobre la evaluación del Consejo, sus puntos fuertes y débiles. El documento está accesible. Asimismo, invita a los vocales a rellenar un formulario para conocer las medidas a adoptar para mejorar la participación.</p>
<p>3. Ebaluazioa osatzeko taldeko dinamika</p> <p>Kontseiluko kideak bi taldetan banatu dira, lehen aipaturiko ondorioez gogoeta egiteko.</p>	<p>3. Dinámica de grupo sobre evaluación del consejo</p> <p>Se procede a dividir a los miembros del Consejo en dos grupos para reflexionar sobre las conclusiones antes mencionadas.</p>
<p>4. Iraunkortasun adierazleak</p> <p>Cristina Enea Fundazioaren ordezkariak aurkeztu du puntua. Dokumentua eskuragarri dute jaso nahi dutenek.</p> <p>Eguzkiren ordezkariak salatu duenez, ostalaritzak eta hotelek askoz ere gehiago birziklatu behar lukete.</p> <p>EMAUSen ordezkariak ehunak xahutzen direla salatu du. Neurriak hartu behar lirateke, marka handiek hainbeste arropa zakarrontzietara ez botatzeko. Haren ustez, interesgarria litzateke adierazle bat egotea, hondakin gutxiago sortzeko.</p>	<p>4. Indicadores de Sostenibilidad</p> <p>El representante de Fundación Cristina Enea presenta el punto. El documento esta accesible para el que lo quiera.</p> <p>El representante de Eguzki denuncia que la hostelería y los hoteles debieran reciclar mucho más.</p> <p>La representante de EMAUS denuncia el desperdicio textil existente. Se debieran tomar medidas para que las grandes marcas no tiraran a la basura tanta ropa. Entiende que sería interesante que hubiera un indicador respecto a la prevención de residuos.</p>
<p>5. 2019rako aurrekontuak</p> <p>2019ko aurrekontuak aurkeztu ditu Ingurumeneko zuzendariak. Adierazi duenez, aurreko urtekoen aldean, % 6,77 gehitu dituzte.</p>	<p>5. Presupuesto 2019</p> <p>El Director de Medio Ambiente presenta los presupuestos para el año 2019. Indica que existe un incremento del 6.77% respecto a los del año pasado.</p>

<p>COAVN erakundearen ordezkariak salatu duenez, desagertu egin dira jabekideen elkarteek energia eraginkortasuneko lanak egiteko laguntzak.</p> <p>Aranzadiren ordezkariak berriro salatu du Sorospen Etxearen kontu saila Ingurumeneko aurrekontuan agertzea. Gainera, adierazi duenaren arabera, ditu gehiago inbertitu behar lukete lurak erosten, horien ingurumen balioa babesteko, behinola Artikutzarekin bezala.</p>	<p>La representante del COAVN denuncia la eliminación de ayudas para las comunidades de vecinos/as en las obras de eficiencia energética.</p> <p>El representante de ARANZADI denuncia una vez más que la partida de la Casa Socorro se encuentre en el Presupuesto de Medio Ambiente. Asimismo, indica que se debiera invertir más dinero en la compra de terrenos con el fin de proteger su valor medioambiental, como en su día se hizo con Artikutza.</p>
<p>6. Eskaerak eta galderak</p>	<p>6. Ruegos y Preguntas</p>
<p>Haritzaldearen ordezkariak honako galdera eta proposamen hauek egiten ditu, baina denbora falta dela eta ezin dira osotasunean jorratu.</p>	<p>El representante de Haritzalde realiza una serie de preguntas y propuestas que no pueden ser tratadas en su integridad por la falta de tiempo.</p>
<ol style="list-style-type: none">1. Ondarretako harri kenketa eta itsasaldien arteko zabalgunearen kontserbazioa.2. Lurdes Txiki. Egungo egoera. Udalak isuna jarri dien eta nola dagoen basoa berreskuratzeko plana.3. Mendizorrotzeko kudeaketa Planaren egoera eta espero den egutegia.4. Ibai-parkea. Ezer erabaki eta finkatu aurretik Kontseilura eramatea.5. Kristina Enea parkeko kudeaketa eta parkea zabaltzeko aukera: Ibai-alde.6. Unanue Landa-Parkea. Noizko? Errekatxulo eta Belartza gainako eremua hartu beharko luke. Unanueko kobazuloa...7. Lur-erosketen politika aldaketa. Bultzatzea lursail berriak babesteko erosketak	<ol style="list-style-type: none">1. Retirada de piedras de Ondarreta y conservación de la zona intermareal.2. Lurdes Txiki. Situación actual. Si el ayuntamiento ha sancionado y en qué situación se encuentra el plan de recuperación del bosque.3. Situación del plan de gestión de Mendizorrotz y calendario previsto.4. Parque fluvial. Presentarlo en el consejo antes de decidir y fijar nada.5. Gestión del parque Cristian Enea y posibilidad de abrirlo: Ibai-alde.6. Parque rural Unanue. ¿Para cuándo? Debería incluir Errekatxulo y la zona del alto de Belartza. Cueva de Unanue...7. Modificar la política de adquisición de terrenos. Impulsar la adquisición de nuevos terrenos para protegerlos.
<p>Alde horretatik, ARANZADIren ordezkariak proposatu du gestio batzuk egitea Udalak Gipuzkoako Aldundian, JR.O.E. lurjabeak Igeldo-Igara inguruan dituen lursail batzuk desjabetzeko hari Aldundiak, 50 milioi euro zor dizkiolako hark Ogasunari. Era berean, ARANZADIren ordezkariak uste du, ekologiaren aldetik interesik handiena duten lurak, Udalak hartu ahal izango lituzkeela, bi administrazioen artean trukea eginda, eta, hartara, segituan babestu litezkeela lur haiek.</p>	<p>En este sentido, el representante de ARANZADI propone que el Ayuntamiento realice gestiones con la Diputación de Gipuzkoa, para que la Hacienda Foral expropié parcelas en el entorno de Igeldo-Igara al terrateniente D. JR.O.E, que tiene en la actualidad una deuda de 50 millones de euros con el fisco. Asimismo, considera que los terrenos con mayor interés ecológico podrían pasar a propiedad municipal por permuta entre administraciones, para proceder a su protección inmediata.</p>
<p>Kontseiluko lehendakariak erantzun duenez, ez daki zein den Lurdes Txikiren egoera, eta Hirigintzan galdetuko du.</p>	<p>La presidenta del Consejo responde que desconoce la situación de Lurdes Txiki, y que preguntará por ello en Urbanismo.</p>

<p>Donostia Bizirik elkartearen ordezkariak galdera egin du hondakinen eta segimenduaren gaineko gida dokumentuaz, bai eta hondakin bilakaerari buruzko seihileko datuez ere. Adierazi diote sektore kontseiluaren hurrengo bilkurara informazio hori ekartzen saiatuko direla.</p>	<p>El representante de Donostia Bizirik se interesa por el documento director de residuos y su seguimiento., así como datos semestrales sobre la recogida de residuos. Se indica que se intentará aportar esta información para próximo consejo sectorial.</p>
<p>Lurdes Txikin gertatutakoaren ondoriozko isunaz eta pinuen zerrenda marroiaz galdetu du Eguzkiren ordezkariak. Haien ustez, aukera bikaina dago bertako basoak berreskuratzeko, pinudiak makalduz doazenez gero.</p>	<p>El representante de Eguzki pregunta por la multa por lo acontecido en Lurdes Txiki y por banda marrón de los pinos. Creen que se abre una oportunidad histórica para la recuperación de bosques autóctonos tras la decadencia de los pinares.</p>
<p>Aranzadiren ordezkariak adierazi duenez, erretzea debekatu beharko lukete hondartza, ostalaritzako terraza eta autobus markesinetan.</p>	<p>El representante de Aranzadi indica que se debiera prohibir fumar en las playas, terrazas de hostelería y marquesinas de autobuses.</p>
	
	
<p>21:05ean bukatu da bilera.</p>	<p>Finaliza la sesión a las 21:05 horas</p>